



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSA-OHARRA

# OGASUNAK 1.598 PERSONARI EMAN DEUTSE AURREZ-AURREKO ARRETA ERRENTA-KANPAINEA HASI ZANETIK, ETA 765 KEXA JASO DITU

- Bizkaiko Batzar Nagusietan agerraldia egin dauen Jose Maria Iruarrizaga Ogasun eta Finantza diputatuari zergadunari arretea emoteko eredia barriro aztertzeko eskatu deutso oposizinoak, “eskaten daben persona guztiei” aurrez aurreko hitzordua bermatzeko.
- Ogasunean “behar daben persona guztiei” aurrez-aurreko hitzorduak bermatzen jakezala ziurtatu dau diputatuak.
- Iruarrizaga errenta-eredu barriaren alde agertu da, eta teknikariak programa “fintzen” ari dirala ziurtatu dau, “persona guztiak eroso sentidu daitezán”.

(Bilbon, 2021eko maiatzaren 5ean). Jose Maria Iruarrizaga Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak agerraldia egin dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan, Talde Berezia-PPBk eskatuta, Batzarretako oposizino taldeek egindako galderei erantzuteko. Galdera horreek, talde horreen esanetan 2020ko Errentaren Kanpaina sortzen ari dan kudeaketa arloko “kaosaren” ingurukoak izan dira. Bere berbaldian, Foru Ogasuneko arduradunak, kanpainaren azken datu “errealak eta objektiboak” jasoten dituan “ikutu eta iragazki bako argazkia” erakutsi dau. Gaur egun, jadanik aurkeztu diren “244.348” aitorpen bialdu dira eginda, igaz baino “% 50 gehiago”, eta “143.000” zergadunen artean “153 milioi” euro itzuli dira, 7 eguneko epean, gehienez be. Ganera, Ogasunak “227.254 personari” emon deutse arretea telefonoz, aurreko kanpainako zifrak “bikoiztuz”, eta aurrez-aurre “1.598 personari”, hau da, “eskatu daben persona guztiei”. Modu fisikoan “128” errenta aitorpen egin dira eta “765 kexa” jaso dira.

Iruarrizagak barriro onartu ditu, apirilaren 27an eta egun bat geroago prentsaurrekoan egin eban moduan, gutunak bialtzean eta webgunean egin diran eta kasu “jakin batzuetan” eragina euki daben akatsak. Bialdutako zirriborroen bolumen osoaren “% 3” izan dira, eta arazo horreek “konpontzen joan dira”. Diputatuak ziurtatu dauenez, Ogasun Sailak egindako “akats bakar batek be ez dau zergadunik kaltetuko”, “ofizioz jardungo dogulako”. Akatsek “min” egiten dabe barruan, “persona askoren lan handia” dagolako atzean. Dana dala, sistemea “fintzen” ari da, “persona guztiak eroso sentidu daitezán”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Amaya Fernandez Talde Berezia-PPBko bozeroalearen eretxiz, “arazoa ez da eredua, kudeaketea baino”. Diputatuak “gitxietsi” egin gura izan ditu bere eretxiz ezaugarri nagusi “kaosa, nahasmena, segurtasun faltea edo nazkea” izan dituan kanpainaren akatsak, eta “kontsultau, kontrastau eta esperimetau bako” eredu bat jarri dau mahai gainean. “Haserrea” herritarrengana iritsi da, batez be “ordenagailurik edo Internetik ez daukienengana” eta aholkulari fiskalengana. Giro horretan, eta “inork erantzukizunik hartu ez izana” deitoratu ostean, errenta aitortpena errazteko “6 soluzino” apliketea eskatu dau: aurrez-aurreko arreteta berreskuratzea, aitortpena aurkezteko epea luzatzea, banketxeak barriro sistema horretan sartzeta, sistema barria ezarteko araubide misto iragankor bat ezartea, itzultzeko epea arintzea eta zerga-aholkulariak kontratatuko kostua dala eta 2021eko errentarako kenkari bat sartzeta baloretea.

Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldeko bozeroaleak, bere aldetik, oposizinoko taldeei eta herritarrei “entzuteko” eskatu deutso Aldundiari, “ereduagaz ados ez dagon” gizartearen zati horri erantzuteko; izan be, aurrez-aurreko arretarik ez dagonez, zergadunak zerga-aholkulariengana jo behar dau, “inoiz ez dabe hainbeste bezerorik izan”. Erantzuten ez diran deien inguruan azalpenak emoteko eskatu deutso diputatuari. Guztizkoaren “% 15,76”, erantzun dau Iruarrizagak. PPK egin dauen moduan, alderdi moreak be, zerga aholkulari batengana joateagaitik sortutako gastuei aurre egiteko kenkariak Ogasunak bere gain hartzea eskatu dau. Horri jagokonez, diputatuak esan dau hori araudia aldatuta egin behar dala, eta hori “Batzar Nagusien eskumena da”.

Arantza Urkaregik bat egin dau “preminazko” neurri zuzentzaileak eskatzen dituen ahotsakaz, batez be, “halan eskatzen daben persona guztiei” aurrez-aurreko hitzordua “bermatzeko”. EH Bilduko batzordekidearen eretxiz, errentaren kanpainako akats horreek “gobernetako modu bat zalantzan jarten dabe. Gauzak dekretuz egitea, herritarren eta oposizinoko taldeen gomendioak kontuan hartu barik”.

Iruarrizagak “koherentzia” eskatu deutse oposizinoko taldeei; izan be, batetik, jente aurreko arreteta indartzea eskatzen dabe, eta, bestetik, Aurrekontuen tramitazioan bere saileko Kontuen aurrean zuzenketa-eskeak eskatzen ditue, arreta hori emoten daben Lantik eta Zugaztel foru soziedadeei zuzendutako partidak murrizteko.

Beste alde batetik, Foru Gobernua eusten daben taldeek (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) ukatu egin dabe kanpaina kaosa danik. “Zuzentzen joan diran akatsak dira”, esan dau Jose Alberto Alvarez Castrejon sozialistak. Zentzu horretan, Unai Lerma jeltzaleak akatsak onartu ditu, baina “aldaketa guztiek errezeloak” sortzen dituela ganeratu dau. Berarentzat garrantzitsuena “zuzentzen joatea” da. Amaitzeko, arazo horreek “handiagotzea” eta kanpaina



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

kaotikotzat jotea arpegiratu deuto oposizinoari. “Ez deuto errealdadeari erantzuten”, esan dau.

Beste alde batetik, aldi baterako enpleo-erregulazino espeditenteei lotutako prestazinoen onuradunentzako PFEZaren aitopenetik eratorritako zerga-zorra ordaintzeko ezohiko zatikapenaren inguruan EH Bilduk egindako erantzun-eskeari erantzunez, Iruarizagak gogorarazo dau foru dekretu baten bidez krisi ekonomiko pairatzen ari diran personei laguntzeko aldaketak onartu dituala Aldundiak. 20.000 eurotik gorako zerga-oinarria daukien zergadunek Ogasunari epe bitan (garagarrilean eta zemendian) ordaindu ahal izango deusiela gogorarazo dau. Ganera, ez ordaintzeko oinarria igon egin da, 14.000 eurorainoko diru-sarrerak dituen zergadunentzat (lehen 12.000 eurorainoko diru-sarrerak ziran). Eta ordaintzaile bi edo gehiago izan ezkeru, 20.000 eurora arte. Koalizino abertzaleak Ogasunari ordaintzeko “sei epe” ezartea eskatzen eutsan, Espainiako Agencia Tributaria izenekoak egin dauen moduan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# HACIENDA HA ATENDIDO PRESENCIALMENTE A 1.598 PERSONAS DESDE QUE COMENZÓ LA CAMPAÑA DE LA RENTA Y HA RECIBIDO 765 QUEJAS

- La oposición pide al diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, que ha comparecido hoy en las Juntas Generales de Bizkaia, una revisión del modelo de atención al contribuyente para garantizar la cita presencial a “todas las personas que lo soliciten”.
- El diputado asegura que se garantizan las citas presenciales en Hacienda “a todas las personas que lo necesitan”.
- Iruarrizaga apuesta por el nuevo modelo de renta y asegura que los técnicos están “afinando” el programa “para que todas las personas se sientan cómodas”.

(Bilbao, a 5 de mayo de 2021). El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha comparecido hoy, a iniciativa del grupo Mixto-PPB en las Juntas Generales de Bizkaia, para dar respuesta a las cuestiones lanzadas por los grupos junteros de la oposición en relación al “caos” de gestión, según ellos, que está suponiendo la campaña de la Renta 2020. En su intervención, el responsable de la Hacienda foral ha ofrecido “una fotografía, sin retoques ni filtros”, con los últimos datos, “reales y objetivos” de esta campaña. Se han hecho “244.348” declaraciones presentadas a día de hoy, un “50% más” que el año pasado en el mismo periodo, y se han devuelto “153 millones” de euros entre “143.000” contribuyentes, en un plazo máximo de 7 días. Además, Hacienda ha logrado atender telefónicamente a “227.254 personas”, “duplicando” las cifras de la campaña anterior, y presencialmente a “1.598 personas”, o sea, “todas las personas que lo han solicitado”. Se han elaborado físicamente “128” declaraciones de la renta y se han recibido “765 quejas”.

Iruarrizaga ha vuelto a admitir, como ya lo hiciera en rueda de prensa el 27 de abril y un día después en pleno, los errores cometidos en el envío de cartas y en la web, que han afectado a casos “concretos”, un “3%” del volumen total” de borradores enviados, problemas que “se han ido solucionando”. El diputado ha asegurado que “ningún contribuyente se verá perjudicado por un fallo” que hayan cometido desde el Departamento de Hacienda, porque “actuaremos de oficio”. Los errores “duelen” internamente ya que hay “mucho trabajo de muchas personas” detrás, si bien el sistema está siendo “afinado” para que “todas las personas se sientan cómodas”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Para la portavoz del grupo Mixto-PPB, Amaya Fernández, “el problema no es el modelo, sino su gestión”. El diputado “ha querido minimizar”, según ella, los errores de una campaña que ha tildado de “caos, desconcierto, inseguridad o chasco” y que pone encima de la mesa un modelo “sin consultar, sin contrastar y sin experimentar”. La “indignación” alcanza a ciudadanos, especialmente a “aquellos que no disponen de ordenador o internet”, y a los asesores fiscales. En este ambiente, y después de lamentar “que nadie asuma responsabilidades”, ha apostado por introducir “6 soluciones” para facilitar la declaración de la renta: recuperar la atención presencial, aumentar el plazo para presentar la declaración, incorporar de nuevo a las entidades bancarias, establecer un régimen mixto transitorio para implementar el nuevo sistema, agilizar el plazo de devolución y valorar la incorporación de una deducción para la renta de 2021 por el coste de contratar asesores fiscales.

Por su parte, la portavoz de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga ha pedido a la Diputación que “escuche” a los grupos de la oposición y a la ciudadanía, para dar respuesta a esa parte de la sociedad “que no está conforme con el modelo”, porque la falta de atención presencial lleva al contribuyente a ir a los asesores fiscales que “nunca han tenido semejante aluvión” de clientela. Ha pedido al diputado que enumere las llamadas telefónicas que no son atendidas. El “15,76%” del total, ha concretado Iruarrizaga. Al igual que el PP, la formación morada ha pedido que Hacienda se haga cargo vía deducciones de los gastos generados por acudir a un asesor fiscal. En este sentido, el diputado se ha referido a que esto debe hacerse a través de una modificación de la normativa, “lo que es competencia de estas Juntas Generales”.

Arantza Urkaregi se ha unido a las voces que demandan medidas correctoras “urgentes”, en especial, para que se “garantice” la cita presencial “a todas las personas que lo soliciten”. Para la apoderada de EH Bildu, estos errores en la campaña de renta “ponen en tela de juicio un modo de gobernar. Hacer las cosas por decreto y sin tener en cuenta las recomendaciones de la ciudadanía y de los grupos de la oposición”, ha apuntado.

Iruarrizaga ha pedido “coherencia” a los grupos de la oposición que piden, por un lado, reforzar la atención al público, mientras en la tramitación de los Presupuestos enmiendan las Cuentas de su departamento para que se reduzcan las partidas destinadas a las sociedades forales Lantik y Zugaztel, en las que recae esta atención.

Por su parte, los grupos que sustentan al Gobierno foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) han negado que la campaña sea un caos. “Son errores que se han ido corrigiendo”, ha dicho el socialista José Alberto Álvarez Castrejón. En este mismo sentido, el jeltzale Unai Lerma ha admitido los errores pero son consecuencia de que “todo cambio tiene reticencias”. Lo



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

importante para él es “que se vayan corrigiendo”, para terminar afeando a la oposición por “magnificar” dichos problemas y por tildar la campaña de caótica. “No responde a la realidad”, ha dicho.

Por otro lado, a pregunta de EH Bildu sobre el fraccionamiento extraordinario para el pago de la deuda tributaria derivada de la declaración del IRPF para beneficiarios durante el año 2020 de prestaciones vinculadas a Expedientes de Regulación Temporal de Empleo, Iruarrizaga ha recordado que la Diputación ha aprobado a través de un decreto foral cambios para beneficiar a las personas que están sufriendo la crisis económica. Ha recordado que los contribuyentes que pasen de 20.000 euros en su base imponible, podrán pagar a Hacienda en dos plazos (julio y noviembre). Asimismo se ha subido la base para exonerar de pagar a contribuyentes con ingresos hasta los 14.000 euros (antes era 12.000). Y en el caso de que se tengan dos o más pagadores hasta los 20.000 euros. La coalición abertzale le pedía que implantara “seis plazos” para pagar a Hacienda como ha hecho la Agencia Tributaria.